

Denon artean

Ekintza

# Hezkuntza geldoa... lasaia

Nik pentsatzen dut... Zertarako?  
Hain zuzen ere, horretarako: nahi duguna, esango duguna, entzuten edo ikusten dugunaren mezua pentsa dezagun... hausnarketa egin dezagun.

## Helburuak:

- Eguneroko bizitzan hausnarketa egiteko erabiltzen den denboraren garrantziaz ohartzea.
- Zentzu kritikoa finkatzea jasotako proposamenekiko, informazioekiko eta abarrekiko.
- Ikasleek parte hartu, erabakiak hartu eta erantzukizunak beren gain har ditzaten sustatzea.

## Landutako kompetentziak:

- Ikasten ikasi.
- Hizkuntza-komunikazioa.
- Gizartea eta herritartasuna.
- Autonomia eta norberaren ekimena.

## Zure ikastetxean

Zure ustez, aipatu duguna egin al dezakezue zuen ikastetxean? Pentsatu, hausnartu, hitz egin, erabaki... , azken finean, PARTE HARTU?

Pentsatu apur bat galdera horri buruz. Aukera hori duzuela uste baduzue, aurrera, eta jarraitu bide horretatik.

Aitzitik, zerbait hobetzerik dagoela pentsatzen baduzue, ekin lanari.

Edonola ere, komeni da tutoretza-orduetan eta gelako bileretan hitz egitea ordezkariekin, irakasleekin...

## Etxean

Iritzia emateko eta gauzak erabakitzeo aukera al duzu? Orduetegiak, ikasteko denbora eta aisialdia, telebista ikusteko denbora... erantzukizunak, hala nola janaria prestatzea edo zure gela txukuntzea.

Gauzak egin baino lehen pentsatzen al dituzu? Zerbait erosterakoan, benetan behar duzun ala ez pentsatzen al duzu? Arropa, oinetakoak, gailuak...

Pentsatu eta erantzun zuretzat. Ondoren, hitz egin dezakezue zure lagunekin.

## Zure Lagunekin

Nola erabakitzen duzue zer egingo duzuen asteburuetan, jaiegunetan, oporretan? Pentsatzen dituzue planak ala antolatu gabe ateratzen dira?

Alderatu antolatzen dituzuen jarduerak "besterik gabe" ateratzen direnekin. Zer ondorio atera dituzue?

Zure iritziz, ona al da proposamen eta pentsamolde desberdinak izatea? Zergatik? Zertarako balio du? Imajina al dezakezu zer izan daitekeen pertsona guztiek iritzi berbera izatea, gauza berberak pentsatzea? Edo inork ezer ere ez pentsatzea?

## Adibide bat:

Askotan, hedabideek informazio kontraesankorrak ematen dituzte. Konturatu al zara? Izan ere, informazioaz gain, iritzi desberdinak ere ematen dituzte.

Agian, ezagutzen dituzun gai polemiko hauek azaltzen dira: sare sozialen erabilera, klima-aldaketa, energia-mota desberdinak, azpiegitura handien eraikuntza...

Horren guztiaren aurrean, zeure iritzia sortzeko gai al zara? Nola egiten duzu? Pentsatuz, ikertuz...? Non, norekin?

## Amaitzeko

Gai izango al zinatekete zuen ikastetxeko edo herriko eguneroko bizitzako beste adibide bat aurkitzeko edo kontatzeko? Saiatu. Lehenik, pentsatu pixka bat banaka, eta ondoren, azaldu elkarri zer pentsatu duzuen, iritziak, informazioak eta abar trukatzeko. Azkenik, jarraitu arestian HEZKUNTZA GELDOA, LASAIA izendatu dugun horrekin; hau da, hartu pentsatzeko denbora.